

**<< Artxibo-Plana >>**

**B. Aginagalde**

**Área 1- Patrimonio Cultural**

**1. Arloa: Kultura Ondarea**

**( Euskarazko alea)**

**Febrero, 2003ko otsaila**

## **ARTXIBO-PLANA**

### **Kulturaren Euskal Kontseiluarentzako Memoria**

#### **0. Aurkezpena**

Memoria honen helburuak honako hauek dira:

1. 'Artxiboen unibertsoa' aurkeztea aditu ez izan arren, izaeragatik, artxibo-zerbitzuen funtzionamendua eta kultur eta heziketa-ahalmenak ezagutzen dituen publikoari.
2. Azken urteotan EAEn garatu diren artxiboen eta ondare dokumentalaren politiken ildo nagusien garapenari buruzko sintesi bat proposatzea, epe laburreko lehentasunak zehazteko.

Gaia hiru paragrafo handitan garatu da. Hasteko, ondare dokumentala eta EAeko artxiboak aurkeztu dira, eta sorreraren historiatik abiatuta horien egitura aztertu da.

Bigarren, azken hamabost urteotako politikaren ildoak zirriboratu dira; eta azkenik, epe ertainerako artxibo-plan bat proposatu da, hiru programa handitan egituratua.

#### **1. Euskal Autonomia Erkidegoko ondare dokumentalaren izaera eta esanahiak<sup>1</sup>**

##### 1.1 Ondare dokumentalaren egitura

Ondare dokumentalaren egungo egitura ezagutu beharreko prozesu historiko baten emaitza da.

Jakina denez, artxiboak (=artxibo-fondoak) dokumentazioaren sedimentazio naturalak sortzen ditu, erakunde eta partikularrek –eginkizunak eta funtzioak betetzeko– jaso eta produzitzen duten dokumentazioa pilatzean. Euskal Herrian fenomeno hori oso hedatua zegoen jada XV. mendean.

Alfabetatzearekin eta zuzenbide idatziaren zabaltzearekin zerikusia du prozesu horrek, eta, euskaldunak ohiturako zuzenbidearen elementu esanguratsu batzuk luze gorde baditu ere, gaztelaniaz idatzitako dokumentuez baliatzea unibertsala zen XV. mendearen amaierarako. Artxiboen sorrera masiboari hasiera-data jartzea eta gure artxibo-fondoaren bolumenari eta antzintasunari buruzko elementu bat izatea dakar horrek. Batzuk hondatu, lermatu edo suntsitu eta abar egingo ziren, baina Euskal Herriko artxibo gehienak orain 500 urte ere bazauden.

Ezin dugu –eta uste dut ez genukeela egin behar– euskal artxiboen historia txundigarriaren xehetasun berezietan eta filigrana historizistetan arreta gehiegi jarri. Daukaguna behar bezala baloratu eta ekintza-programa egokiak diseinatzeko ondo ezagutzea beharrezkoa dela jakinik ere, alderdirik garrantzitsuenak soilik aipatuko ditut.

Lehenik, kontuan hartu behar dugu geure esperientziaren arabera ulertzen ditugula artxiboak. Hau da, XIX. mendeko iraultza burgesekin sortu eta *ongizate-estatu*-ekin batera garatu zen ikuspegitik abiatzen gara; Estatuak zerbitzuak ematea herritarraren eskubidea da. Horien artean, artxibo-zerbitzua.

---

<sup>1</sup> Gaizki-ulertzeak eta nahasteak saihesteko, kontuan hartu memoria honetan egungo EAeko hiru lurralde historikoen ondare dokumentala soilik izango dugula aipagai.

Hau da, gure ikuspegia atzera begirakoa da, eta baliteke horrek 'artxiboen unibertso' deiturikoa behar bezala ulertzea eragozte. Arrazoi simple bat dago horretarako: diagnostiko egokia egiteko, beharrezkoa da, diakronian, egungo ondare dokumentalaren izaera eta gorabeheren berri izatea, eta haren ezaugarriak eta bost mendeotan izateko arrazoiak zein den jakitea, artxibo horiek sortu eta osatu dituen gizartea ezagututa.

Ez da zaila bi topiko nagusitan katramilatzea: oso unibertso konplexua eta errealtate oso dibertsifikatua da, espezifikotasunez betea eta ulergaitza. Faltsuak dira topiko horiek biak, eta paragrafo honen helburua, hain zuzen, ondare honen ulermen globalerako bidea erraztea da.

Laburbilduz, bi datu hauek hartu behar ditugu aintzat:

1. gure gaur egungo ondare dokumentala eratzeko prozesu historikoak bi fase ditu (ondare hori hainbat titulartasun eta egituratako artxibo-fondoetan biltzen da), eta XIX. mendeko iraultza burgesak dira mugarri. Fase batetik bestera Erregimen Administratibo eta Juridiko Forala ezabatu eta, haren ordez, joera konstituzionala eta burgesa zuen administrazioa nagusitu zen. Lehena (errazago izan dadin, Erregimen Zaharra deituko duguna) eta geroa bereizi behar dira, eta bien artean 1840-1875 arteko trantsizioa. Estatuaren nonahiko garapenak, zuzenbidearen adarren kodifikazioak, eredu ekonomiko kapitalistarako bideak eta abarrek alferreko bihurtzen dituzte ordu arte beharrezkoak ziren hainbat artxibo (familiarenak, esaterako), eta beste hainbaten egitura eta izaera aldatzen dute (fondo judizialena, esaterako).
2. Erregimen Zaharreko artxibo ugari (artxibo-fondoak) partikularren, erakundeen eta era guztietako elkarten beharrei erantzuteko eratu zituzten; hain zuzen, horien jabegoen eta jardueren fede emateko, eskubide ekonomikoak eta merkataritzakoak defendatzeko, etab. Baina garrantzitsua da kontuan hartzea askotan ez direla jatorrizko dokumentuak, notarioak, udalbatzak, epaileak eta abarrek eginiko kopiak baizik. Horregatik, erabilgarriago izan dadin, artxibo-fondoak eta lehen mailako dokumentuak eta bigarren mailakoak bereiziko ditugu. Protokolo notariala, udalbatzaren akta-liburua, bataioen erregistroa... jatorrizko agiriak dira. Horien kopiak ateratzen dira, eta artxiboak pilatu. Hala, protokolo notariala da 'artxibo-sortzaile' nagusia, Erregimen Zaharreko partikular eta erakunde guztiek jotzen baitzuten, behin eta berriz, notarioarengana beren negozio publikoak eta pribatuak egiteko, eta transakzio edo negozioen eskrituren kopiak eskatzen baitzituzten. Justu beste aldean, administrazio-garapenak espedienteen artxibo-masa esponentzialki handitzen du; horien edukiak eta izaerak interes gutxixeagokoak dira.
3. Artxibo-fondoan zati handi bat lurralde mailako jardueren ondorioa da. Gaur egun, ia erabat, administrazio publikoei dagokiena Erregimen Zaharrean hainbat mailatako administrazio zibilei eta erlijiosoei zegokien. Gainera, eskumenen banaketa espezializatua eta oso bestelakoa zen orduan, egun ikusten ohituta gaudenarekin (eta, horregatik, logiko eta natural deritzogunarekin) alderatzen badugu. Esate baterako, egun erregistro zibiltzat daukaguna orduan Elizaren eskumena zen, sakramentu-liburuen bidez; alkateak lehen auzialdiko epaile aktiboak ziren; foru-gobernuek administrazio politiko eta ekonomikoaren adar gehienez ulertzen zuten; eta fideikomisoak eta beste erakunde batzuek ondasunen zirkulazio librea mugatzen zuten.

4. Iraultza burgesek krisi handia ekarri zuten: artxibo-fondo batzuek izateko arrazoia galdu zuten. Fondo itxiak dira horiek, jada handituko ez direnak. Eta balio bakarra dute, historikoa. Beste artxibo batzuk kudeatzen dituzten erakundeen erritmoan transformatu dira: diputazio eta udalenak, batez ere. Eta beste batzuek eragin eta garrantzi soziala berdimentsionatu dute: batik bat, parroketakoek (erregistro zibilak hartu zuen horien funtzioa) eta notarialek. Azken horien garrantzi ekonomikoa eta soziala zerbitzu administratiboek ere hartu dute, hain zuzen ere, arlo zibilean, ekonomikoan eta abarretan kodifikatutako zuzenbidea hedatuz garatutako zerbitzu administratiboek. Aldaketa-prozesua 1980-1900 ingururako finkatu zela esan liteke.

Artxibo-politika guztiek kontuan hartu behar dituzte datu historiko horiek, kudeatzen duten ondare dokumentalaren izaera eta ezaugarriak behar bezala ulertzeko eta, horrela, errealitate objektiboan oinarritutako lehentasunak dituen ekintza-programa diseinatzeko. Errealitatea behar bezala ez ezagutzeak koordinazio falta, proiektu partzialak edota errepikakorrek edo minimalismo partikularista eragiten ditu, eta ez dago hori baino gauza kaltegarriagorik. Baliabideak mugatuak dira beti, eta ikuspegi globalak soilik berma dezake horiek ez sakabanatzea.

## 1.2 Esanahiak. Ondare hau zergatik eta zertarako

Artxiboak ulertzeko modua ere aldatu egin zen XIX. mendean. Estatu burges konstituzionalak, hainbat erakunde deuseztatu eta beste batzuk eratzean, ordu arte bizi-bizi zeuden artxibo-fondo batzuk interes historikoa soilik zuten dokumentu bihurtu zituen. Ez zituzten artxibo historikoak asmatu, baina Europa osoan artxibo historiko nazional handiak sortu ziren, administrazio berriaren memoria historikoa osatzeko eta kudeatzeko balio ez duen dokumentazioa gordetzeko. Pixkanaka, gordailu handi horietan sartu zituzten, gainera, balio historikoa soilik zuten dokumentazio-fondo publiko eta pribatuak.

Administrazioen garapenak esponentzialki handitu zuen gordailu horietan gordetzeko moduko dokumentazioaren bolumena, eta XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako erdi- eta goi-mailako irakaskuntzaren garapenak artxiboko dokumentuekiko interesa piztu zuen herritarren artean eta memoria historikoa ulertzeko modu berri bat zabaldu zuen, ez komunitatean bakarrik, baita norbanakoengan, familietan eta abarretan ere.

XX. mendearen bigarren erdian, artxiboen unibertsoa ulertzeko moduan benetako iraultza gertatu zen. Labur esanda, hauek dira indar-lerro nagusiak:

1. Artxiboak erabiltzeko dagozkien legedietan jasotako eskubidea, teorikoa eta elitista, gauzatzea eta zabaltzea.
2. Administrazioetako artxiboen estatusa aldatzea, ez baitira gordailu ahaztutzat hartzen, eguneroko kudeaketan eta herritarrei eman beharreko zerbitzuan garrantzia duten alderditzat baizik.
3. Artxiboen bakartze kultural tradizionala haustea; izan ere, eztabaida zientifikoaren sarean, kulturaren kudeaketan eta heziketa eta zabalkunde kulturalen sartzan dira, abiadura eta eraginkortasun ezberdinarekin bada ere. Artxiboaren izaerari eta funtzioei buruzko literatura grisa eta bere jardueren, etorkizunaren eta abarren eztabaida zientifikoa esponentzialki areagotu dira.
4. Kalitatezko artxibo-zerbitzua eta zerbitzuaren mekanizazioa parekatzea. Dagoeneko ez da pentsatu ere egiten informatizatu gabeko artxiboetan, maila eta zehaztasun bateko edo besteko informatizazioa funtsezkoa da egun.
5. Ondo zaintzeko kezka. Artxibo garrantzitsu gehienek eraikin berriak edo zaharberrituak dituzte, iraungo dutela ziurtatzeko: gordetzen duten dokumentazioa, memoria historiko kolektiboaren oinarri nagusia, zaintzeko.

## 2. Egoeraren bilakaera eta artxibo-politika, 1975-2002

Bitzita ekonomiko eta kultureko beste hainbat arlotan bezala, artxiboen munduan ere frankismoaren amaierak energia izugarria askatzea ekarri zuen. XXI. mendearen hasierako egoera, orain 20 urtekoarekin alderatuz gero, erabat ezberdina da. Gauza asko egin dira, eta, oro har, ondo egin dira gainera. Mugarri nagusia 1990. urtea<sup>2</sup> da, orduan onartu baitzen Euskal Kultur Ondarearen Legea (EKOL).

Ekimenak laburbiltzea zaila da, idazten duenaren irizpidetik, lehenik Jaurlaritzaren ikuspegira lerratu gabe. Aurreko paragrafoan bezala, mutazio-aro horretako bilakaeraren eta jarraitutako politiken ezaugarri nagusiak azaltzen saiatuko naiz.

### a. protagonistak

EKOLEk, protagonistei dagokienez, lehena eta geroa banatzen ditu. Hasieran diputazioak izan ziren arlo honetako politiken protagonista (baita kulturarekin zerikusia zuten eta tradizionalki foru-gobernuei zegokien 'sustatze' kontzeptu zaharrari lotuta zeuden beste hainbat arlorenak ere), baina EKOLEk egoera berrantolatu eta EAeko eskumenen banaketa finkatu zuen. Hiru diputazioek dute beren artxiboen eskumen osoa, eta EAeko gainerako ondare dokumentala Kultura Sailaren eskumena da. Kultura Sailarenak dira, halaber, koordinatzeko, normalizatzeko eta abarrerako eskumen orokorrak.

Kultura Ministerioaren ardurapean daude hiru probintzietako artxibo historikoak. Horietan daude ehun urtetik gorako protokolo notarialak eta Estatuaren administrazio periferikoaren fondo batzuk.

Irargi-k, Bergarako artxibo-zerbitzu eta ondare dokumentalak, diseinatu eta garatzen du Jaurlaritzaren artxibo-politika 1986tik. Toki-administrazioek –Jaurlaritzak lagunduta– gero eta interes gehiago jartzen dute beren artxiboetan, eta, pixkanaka, artxibo-zerbitzuak sendotuz doaz hainbat herritan.

Bestalde, artxiboekiko kezka artxibo pribatuetara (familien, elkarten eta abarren jabeagoak) eta, bereziki, elizbarrutiko artxiboetara (parrokietako guztiak biltzen dituzte) zabaldu da. Hutsune handi bat dago oraindik, gizarte zibila, eta eskura ditugun bide guztiak baliatu behar ditugu ondasun horiek zaintzen parte har dezan eta horiekin goza dezan; izan ere, denbora luzez artxiboen arlotik urrun egonarazi zaio aurreiritzi xeble batzuetan oinarrituta.

### b. artxibo-politiken ezaugarri komunak eta lorpenak

Hainbat herri- eta foru-administrazioek eta Jaurlaritzak azken urteotan egindako lanari esker, sekulako aldaketa gertatu da ondare dokumentalaren egoeran, eta aldaezina dela uste dut gainera.

Artxibo-zerbitzuek oinarritzko hiru funtzio dituzte; hauexek dira, orden naturalean: kontserbazioa, fondoaren tratamendua eta zabalkundea. Hiru alor horietan antzeko lana egin dute administrazio gehienek. Kointzidentzia esanguratsua eta adierazgarria dela esango nuke, guztiak lehentasun kultural bertsuak izan dituzten garai edo une historiko batean. Bultzada kolektiboa eman zaio, eta banakako ahaleginen baturak balio erantsia eta oraindik aprobetxatu ez diren sinergiak ditu. Hirugarren atalean proposatutako proiektuak izan litezke sinergia horiek aprobetxatzen hasteko bidea. Fenomeno horretaz ohartu eta interpretatzeko, talaia pribilegiatua da, agian, Jaurlaritza, baina guztien lankidetzarako borondatearekin soilik gauzatu ahal izango dira egun ezkutuan dauden gaitasun eta sinergia horiek.

---

<sup>2</sup> <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1990/08/9002387a.pdf>

1. **kontserbazioa sendotzea.** Euskal Herria harrobi handia izan da urteotan, azpiegitura asko egin edota berritu dira. Eraikin administratibo asko berriak edo zaharberrituak dira, eta udal gehienek etxe berria dute. Artxibo-zerbitzuak ere (batzuek beste batzuek baino zorte hobea izan dute) egon dira prozesu horretan eta instalazioak berritu dituzte. Artxibo-proiektuak egitean asmatu den edo ez gorabehera, egia esan, dokumentazioa gordetzen duten instalazio gehienak berrituta daude eta segurtasun-neurri egokiak dituzte. Ezin ukatuzko aurrerapena da hori.
2. **Tratamendu teknikoa modernizatzea.** Artxibo-zerbitzuetan proposamen informatiko piloa dago; giza baliabideak, txostenen tratamendu dokumentala eta abar hobetzeko aplikazioak. Arlo honetako inbertsioak herritarren zerbitzuak hobetzeko prozesu orokorarekin batera doaz, izan ere, artxiboak garrantzi berezia du kalitatezko zerbitzu horien artean. Oraindik asko dago egiteko (normalizatzea, txantiloiak egitea/zabaltzea, etab.), baina oinarriak jarrita daude.
3. **Dibertsifikazioa zabalkundean.** Hirugarren fasean (hala dei badakioke) izan da garapen kualitatiborik txikiena. Aurrez adostutako diseinua balira bezala, artxiboek, zalantzarik gabe, atzera bueltarik ez duen eran sendotu dute kontserbazioa (1. funtzioa), barne-zerbitzua modernizatzeko erronkari heldu diote eta hobetzen hasi dira (2. funtzioa) eta, 3. funtzioari dagokionez (zabalkundea), desfase handia dago. Alderdi horren garapena, zalantzarik gabe, goiztiarra da; dokumentazioa tratatzeko/mantentzeko funtzioarekin kolapsatuta daude zerbitzu batzuk. Hausnarketa-prozesu bat hasi da herritarrei eman beharreko zerbitzuak nolakoa izan behar duen, nola demokratizatu behar den argitzeko, eta, ondorioz, artxibo-zerbitzua zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituen agente kultural aktibo eta *familiar* bilakatzeko. Dokumentazio-erakusketen mundua ikertu da, zenbait zerbitzu pedagogiko sortu dira, etab., baina proiektio ausartagoa/sortzaileagoa falta da. Horretarako, jakina, artxiboen ardura duten profesionalak alor horietan (gehienak berriak) trebatzeko aukera eta denbora gehiago behar dute.

Prozesu honetan alderdi ilunak, konpondu gabeko arazoak eta hutsune nabarmenak daude, enpresen artxiboenak esate baterako. Horiei guztiei buruz arituko gara txosten honetako hirugarren paragrafoan.

#### c. Jaurlaritzaren politikaren ardatzak (1985 ... 1990 – 2002)

Egungo egoerari buruzko txostena egiteko, nire ustez, Jaurlaritzaren ikuspegia (kezka apur batekin aitortuta, egilearena ere badena) kontuan hartu beharrekoa da. Jaurlaritzaren alderdi honetako politika-bitarteko tekniko, zientifiko eta giza bitartekoak zuzendu eta birbanatzeko faktoretzat hartuta, garrantzitsua da lankidetzaren eta animazio kultural ez-paternalistaren ikuspegitik (politika honen ezaugarriak) egin denari arreta jartzea.

1990eko EKOL oinarrizko erreferentea da azken urteotako Jaurlaritzaren politikan. Lehena eta geroa bereizi gabe, kontzeptuak mugatu, gai honetako egitura administratiboak deskribatu, ardurak eta egitekoak banatu, etab. egiten duen lege-esparrua izatea artxibo-politikaren ildoak eusteko eta horiek finkatzeko bitartekoa izatea da; eta, alderantziz, politika horrek Legeak ezartzen dituen irizpide orokorrak garatzen ditu denborak aurrera egin ahala.

Politika pixkanaka finkatu da, eta gaur egun perimetroa, izaera propioa eta ibilbide zehatza ditu. Inguru nahasian, lragirik, etenik gabe, lan-esparru sendoa eta espezifikoa eratu du, gobernu-nortasuna eta maila handiko espezifikoa duena.

Politika horrek lehentasunak ezarri ditu hasieratik, programa zehatzen inguruan lan egiten du eta lanerako jarraibide eta filosofia jakin batzuk errespetatzen ditu. Programa nagusiak:

1. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden **iturri nagusien deskripzio-berreskuratzea** Hasieratik erabateko lehentasuna izan zuen ehunka urteko atzerapenari aurre egiteak, artxiboen eta erabiltzaileen egoera jasanezina baitzen. Behar bezala antolatutako artxibo-fondoekin soilik egin daiteke aurrera beste esparru batzuetan. Eskumenak banatzeko prozesu natural baten emaitza gisa, Jaurlaritzak bere gain hartu zuen EAetik kanpo dagoen dokumentazioaren deskribapena egiteko ardura, eta administrazioek bakoitzak bere fondoak deskribatzeko/eguneratzeko ardura dute. Bi prozesuak ondo burutu dira. Memoria honetako 1. paragrafoan egin den bereizketa horri jarraiki, bi fondo nagusiak deskribatu dira: Valladolideko Errege Kantzelaritzaren Artxiboa eta Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala. Bietan XV. mendetik XIX.enera bitarteko dokumentazio juridikzionala/judiziala (administrazio-maila gorenekoa) gordetzen dute, eta herrialdeko beste artxiboetan dauden antzeko *oinarrizko iturriak* osatzen dituzte. Programa burutu da eta 50.000 erreferentzia bildu ahal izan dira, informazioz beteriko hamar bat milioi folio. Lortu den datu-baseak (*Badator*) Euskal Herriko ikerketa historikoaren iraultza ekarri du. Horren adierazgarri dira orain bi urtetik hona argitaratu dituzten maila jakin batetik gorako tesi eta lan guztiak.
2. **Artxibo-zerbitzuak: lurralde-mapa osatzea.** Jaurlaritzak ahalik eta gehien garatu du bere lankidetzaren eremu naturala, toki- eta udal-administrazioak alegia. Diputazioen hiru artxiboek kudeatzeko gaitasun eta autonomia osoa dute, eta Irargik, urtero (diru-laguntzentzako agindu baten bidez<sup>3</sup>) herri mailako artxibo-zerbitzuentzako laguntzak ematen ditu; izan ere, udalerrria izanik herritarrengandik hurbilen dagoen eremu naturala, memoria historikoa eta horren balore espezifikoen kontzientzia indartzeko, lehentasunezkoa da EAeko udalerrri guztiek zerbitzu egokia, eraginkorra eta lehiakorra izatea. Helburua artxibo-zerbitzu integrala<sup>4</sup>, kudeaketa-artxiboa ardatz duena, sendotzea da. Funtzionamendu egokitik atzera eginda artxibo historikoak antolatu-deskribatu daitezke. Zerbitzua, osotasunean, eguneroko kudeaketaren eraginkortasuna kontuan hartuta baloratzea da asmoa; izan ere, esperientziak erakutsi duen gisan, artxibozainaren lana faserik modernoenean dago.
3. **Ondare dokumentalaren deskribapen masiboa.** Antolatutako/deskribatutako artxibo-fondoak soilik dira erabilgarriak. Euskal Autonomia Erkidegoak hutsune nabarmena zuen alderdi honetan orain 15 urte. Gaur egun jada ez. Egoera honetara heltzeko, Irargik 'ekintza-plan' bat garatu du, bi ardatz nagusi dituen: a) erabiltzaileentzat eraginkorrak ziren inbentario zaharrak berreskuratzea eta estandarizatzea/mekanizatzea; b) antolatu gabeko artxibo-fondoak deskribatzea errentagarritasun-irizpidea kontuan hartuta eta *politika deskriptibo* oso zorrotza jarraituta. Urteko diru-laguntzen ordenak<sup>5</sup> finantzatzen du, titular pribatuen laguntzarekin, artxibo ez-publikoen deskribapena. Bide horretatik, hamar urtean 60 bat artxibo-fondo ez-publiko (familien, Elizaren, elkarten eta abarren esku daudenak) deskribatu dira, eta hori erabiltzaileen eskura lehen mailako informazio-kopuru oso handia jartzearen parekoa da.

<sup>3</sup> La de 2002: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2002/05/0203117a.pdf>

<sup>4</sup> EKOLEk arreta berezia jartzen du alderdi horretan, eta artxibo-zerbitzua udalerrriaren memoria kudeatzeko administrazio-organo gorentzat hartzen du.

<sup>5</sup> 2002koa: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2002/05/0203118a.pdf>

4. **Ondare dokumental pribatua berreskuratzea.** Gobernu mailako zentzuzko politikek ezin dute gutxietsi ondare dokumental pribatuaren garrantzia. 1. paragrafoan azaldu da lehen mailako dokumentazio pribatuaren garrantzia (Elizaren artxiboak, familien esku daudenak, etab.). Aipatutako ordenaz gain, Sailak, elizbarrutien hiru artxiboekin batera, proiektu handi ikusgarri bat sustatu du XVI. mendetik XX.enera bitarteko Euskal Herriko “populazioaren errolda historikoa” indexatzeko eta digitalizatzeko (gero Internet bidez zabaltzeko).
5. **Ondare dokumentalaren zabalkunde masiboa.** Artxibo-politikaren ardatzetako bat, goraxeago zirriboratu duguna, “politika deskriptibo” zehatza kudeatzea da; eta horren helburu nagusia herritarrek beren ondare dokumentala askoz eskuragarriago izan dezaten erraztea da. Jarraibide erraz batzuekin eta estandarizazio gogorarekin, XIV. mendetik XX.enera bitarteko dokumentazioarentzat baliagarria den formatu deskriptibo batzuk prestatu dira, bide tekniko egokien bidez zabalkunde globala egin ahal izateko. Internet sarearen garapenak zabalkunde-esparru zehatza eta egokia eskaini digu gure proiektuarentzat. 1998an “Badator” zerbitzua inauguratu zen, Irargiren web orrian dagoena: ia 300.000 artxibo-erreferentzia ditu, artxibo-fondo publiko nahiz pribatuetakoak, eta denbora errealean kontsulta daitezke<sup>6</sup>. Jaurlaritzaren deskripzio- eta zabalkunde-politikaren erakusgarri onena eta adierazgarriena da Badator herritarrentzat: deskripzio erraza eta gure ondarea eskuratzeko bide demokratiko eta unibertsalaren bermea.
6. **Ondare dokumentalaren erreprodukzioa-kontserbazioa.** Egungoa baino giro askoz korapilatsuagoan abiatu zuen Kultura Sailak bere artxibo-politika, mikrofilmazio-zerbitzu xume batekin, eta gaur egun esanahi edo garrantzi berezia duten fondoak eta bildumak digitalizatzen ditu; betiere, erreproduzitutako materiala zabaltzeko. Gau egun Internetek egiten du posible hori.

Harrigarria dirudi, baina Irargik, dituen bitarteko apurrekin, anbizio handiko programak hasi eta, kasu batzuetan, amaitu ditu. Meriturik handiena irizpide edo ‘lan-filosofia’ berari zintzo jarraitzea da. Hona hemen irizpide horiek:

1. “ulertzeko, ezagutu”. Artxibo-fondoak antolatu eta zabaltzea ez da helburua, baizik eta herritar guztien eskueran jarri behar dugun bitartekoa heziketa eta kontzientziazioa indartzeko eta gizartea hobetzeko.
2. ‘politika deskriptibo’ hertsia, deskripzio-prozesuen estandarizazioan eta deskripzio soiletan oinarritua, artxiboko materiala argiago eta errazago uler dadin.
3. Artxiboen titularrek horien gaineko ardura har dezaten sustatzea, nahiz publikoak nahiz pribatuak izan. Artxiboak gorde eta eskuragarri jarri jabeak egin behar du. ‘Ekologismo artxibistikoa’ delakoak artxiboa sortu zen lekuan gordetzea defendatzen du, hantxe baloratzen eta estimatzen baitute gehien bere berezko kultur balioa.
4. Memoria kolektiboaren euskarri gisa artxiboek duten balioa ordezkazina da, eta horren kontzientzia zabaldu behar da; ondorioz, kontserbatzearen eta zabaltzearen garrantziaz jabetu behar du jendeak. ‘Irargi’-k ondo asko daki ez dela beste edozein zerbitzu administratibo bezalakoa. Gure ardura da gure memoriaren alderdi puru, garrantzitsu eta baliotsuena –artxiboko dokumentuetan jaso– ahalik eta hobekien zaintzeko bitarteko eraginkorrenak eta egokienak topatzea.

---

<sup>6</sup> Badator 200.000 erreferentzia berriekin aberastuko duten fondo berriak sartzea aurreikusita dago: batzuk oso handiak (esate baterako, Loiolako artxiboko musika-fondoa eta Salazar y Castro bilduma, bien artean 120.000 erreferentzia baino gehiago dituztenak) eta beste batzuk kutsu sinboliko handikoak (Lazkaoko beneditarren artxiboa, adibidez).



### 3. Artxibo-planen proposamena, 2003 - 2006

Memoria honetako lehen bi paragrafoen helburua artxibo-plan errealista eta aurrerakoi baterako proposamena ulerterraz egiten duten elementuak deskribatzea zen. Behin daukagun ondare dokumentalaren egitura eta izaera ezagututa eta orain arteko politikak deskribatuta, asmo handiagoko programa bat –elementu osagaietan sendoa eta epe ertain/luzerakoa– koherentziaz eratu eta sustatzeko moduan gaude.

Baina memoria honen helburua ez da amildegian behera jauzi egitea, huts egingo lukeen ahalegin antzua izango bailitzateke, ondare dokumentalaren politika berdimentsionatzea baizik. Alde horretatik, Irargi behatoki pribilegiatua da eta proposamen global bat egiteko posizio ezin hobean jartzen gaitu; hona hemen proposamen horren oinarriak:

1. **Jarraitutasunaren koherentzia:** egun garatzen ari diren programak eta lan-ildoak sustatzea; horien emaitza onek jarraitutasuna bermatu eta laguntza gehiago eskatzen dute.
2. **Berdimentsionatzea eta salto kualitatiboa egitea** apustu sendoa eskatzen duten proiektuetan, Kulturaren Kontseiluaren izaerarekin eta helburuekin bat: programa berriak abian jartzea da kontua, hau da, orain arte finantzatzerik izan ez den baina euskal kulturaren bilakaerak eta artxiboen politikak erronka berri gisa dakartzaten proposamenak (batzuk, artxibo historiko nazionala esaterako, oso presazkoak, ikusiko dugunez).

Hiru programa orokor proposatzen dira; hain zuen ere, alde batetik, artxibo politiken arloan protagonista nagusiek antzematen dituzten ekintza eta behar gehientsuenak biltzen dituzte, eta bestetik, hiru maila nagusitan gauzatzen dira:

1. Gobernu mailan (=azpiegiturak), artxibo-politiken arduraduna, artxibo historiko nazionala gauzatzea, kontserbazio-, tutoretza- eta koordinazio-politiken euskarria;
2. Lurralde-toki mailan (=zerbitzuen garapena), herri mailako artxibo-zerbitzuen mapa behin betiko amaitzea, herritarrari eman beharreko zerbitzuen ardatza, eta
3. Herritarren mailan (=sustapen teknologikoa eta teknikoa), dokumentazio gehiena digitalizatu eta CDetan biltzeko programa bat garatzea, gero Internet bidez zabaltzeko.

#### 3.1 Euskal Autonomia Erkidegoko mapa artxibistikoa amaitzea: artxibo historiko nazionala

**Artxibo nazionalaren funtzioa** ezin da bereizi hainbat gobernu-alorretan eskumen osoa duen herrialde mailako administrazioetik.

Ikuspegi horretatik, Artxibo Historiko Nazionalak (“Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historiko” zoritxarrekoa ordezkatzeko duen izena, 1990eko EKOLen jaso) zentzua du herrialdearen garapen historikoko une jakin batean. Euskadik metamorfosi administratibo, sozial, politiko eta historikoa jasan du, azken hoguei urteotan aurrekaririk ez duena, eta iritsi da garaia azpiegitura berezia hornitzeko, memoria kolektiboa gordetzeko, aldaketa horiei buruzko informazioa emateko eta herrialdearen garapenaren lekuko material gisa funtzionatzeko; azken finean, bere ezagutza sustatzeko eta, horrela, gure **memoria historikoa** gorde, zabaltzeko eta ondorengo belaunaldietara irits dadin beharriari egoki erantzuteko.

Artxibo Historiko Nazionalak (AHN), gainera, herrialdearen mapa artxibistikoa ixten du, administrazio nagusi guztiek baitituzte artxibo-ekipamendu modernoak (bai foru-aldundiek, bai udalek). Artxibo-politikak behar adinako heldutasun-maila du bere bilakaerak berak eskatzen duen azpiegiturari aurre egiteko. Hona hemen AHNren izaera definitzen duten ezaugarriak:

- Kultur Ondarearen Legeak jasotzen duenaren arabera, memoria kolektiboaren gordailua (kasu honetan euskaldunena) eta, batez ere, leku sinbolikoa da, eta iraganeko nahiz orainaldiko errealitatea **interpretatzea** posible egiten duen dokumentazioa eskuratzeko eremu fisikoa. AHNn gordeko da herrialdeari buruzko artxibo-informazio guztia, dagoen euskarrian dagoela, gure memoriak iraungo duela ziurtatuko digun bermea izan dadin. Horretarako, AHNk bere instalazioak eskainiko ditu erakundeen eta partikularren artxibo-fondo guztiak eta Euskal Herriari buruzko informazio-mota guztiak, beste fondo eta artxibo batzuetan daudenak, biltzeko.
- Administrazio publikoaren artxibo-egituraren gailurra da, eta artxibo-sistema nazionalaren burua (gure kasuan, EKOLen diseinatua, 78. artikulutik 81.era); eta, alde horretatik, dokumentazio iraunkorraren, hau da, historikoaren gordailua, administrazioarena berarena, bere erakunde autonomoena eta partaidetza duten enpresena.
- Autonomia Erkidegoko kultur zentro enblematikoetako bat da, ikerketa historikoaren zerbitzura dagoena; eta, alde horretatik, kulturaren sorkuntzan eta zabalkundean motor garrantzitsua da.

Artxibo-zerbitzuaren ikuspegi soiletik, AHNk funtzio hauek betetzen ditu:

1. ondare dokumentala babestu, kontserbatu eta berreskuratu.

AHN Euskadiko **antolakuntza artxibistikoaren maila gorena da**, eta, horregatik, berari dagokio “Euskadiren memoria historikoa” babestu, kontserbatu eta eskueran jartzea. Helburu hori betetzeko, AHN balio historikoa duten artxibo fondoak kontserbatzeko eta zabaltzeko zentro bilakatuko da.

Artxibo Nazionalak dokumentazioaren gordailu-funtzio garrantzitsua beteko luke, bide klasikoak erabiliz, erakunde publikoen nahiz pribatuen artxibo-fondoak eman, erosi edo gordeta. Fondoak behar ez bezala sakabanatuta egon dira orain arte (udaletan, fundazioetan, elkarteetan edota diputazioen artxiboetan), eta horrek eragin duen hutsunea betetzea da asmoa.

Jakina da Euskal Herriaren historian garrantzi handia duela alderdi pribatuak. Elkarrean, ekimen pribatuak ugariak izan dira beti; nola ez, baita merkataritzan eta industrian ere. Alde horretatik, ez dago erakunde-sare osoak pilotutako artxiboak kontserbatu eta zabaltzeko erreferentziazko lekurik. Era berean, ez dago erreferentziazko artxiborik diasporako artxiboentzat edo XX. mendearen bigarren erdiko politikari ospetsuen artxiboentzat.

Ongi hornitutako zentroyen disuasio-gaitasuna ukazina da; izan ere, artxiboak kontserbatu eta zabaltzeko benetako alternatiba bat eskaintzen dutenez, enpresek, familiek, elkarteek artxiboak modu txarrean ez galaraztea lor dezakete. Artxibo ez-publikoen programak, une oro, egoera horretan dauden era guztietako erakundeekin eta familiekin harremanetan jartzen gaitu, eta horiei ezin diegu soluzio hori eskaini.

Kontuan hartu behar da arazoa gaiztotu egingo dela. Gizarte zibilak azkar egiten du aurrera, eta erakunde, elkarte, etab. asko sortu eta desagertzen dira. Askotan, gainera, eragin sozial, ekonomiko edo kultural handia dute, baina haien memoria galtzeko arriskuan dago. Era berean, urteotan 'enpresa-kapitain' edo familia-ordezkarari ugari ari dira desagertzen, ondasunen artean artxibo pertsonal edo familiarra zutenak, eta gehienetan artxiboa galtzeko edo hutsune konponezinak izateko arriskuan dago.

Alderdi horretatik, ordezkarari politiko, kultural eta sozialei behar bezalako garrantzia ematen dien gizartearen irudia da AHN. Herrialdeko pertsona ospetsuek bildutako era guztietako dokumentazioa kontserbatzeko interesa erkidegoak ematen dien ospearen eta azken urteotako historiak duen garrantziaren seinale sinboliko esanguratsuenetako bat da.

## 2. Artxibo-sistema nazionalaren garapena.

EKOLEz gain, EASNk beste bi elementu ditu oinarrian: Artxiboen Araudia (EHAAn 2000ko abenduan argitaratua)<sup>7</sup> eta artxibo-fondo historikoak fisikoki hartuko dituen azpiegitura sortzea, aztergai duguna. AHN gauzatzea arazo arkitektonikoa, kokapeneko eta organigramarena soilik izan dadin, Irargik ezarri ditu lege-oinarriak; funtsezko diseinua EKOLEn eta 2000ko Araudian jasoa dago.

## 3. ikerketa.

Artxibo Nazionala herrialdeko kultur ekintzen adierazle nagusietako bat da, *jakintzaren gordailu* bat. Alde horretatik, Euskadin ikertu gabeko ekintza-eremu handia dago, berehala konpondu beharreko hutsunea duena. Garrantzitsua da nabarmentzea ezaugarri horiek dituen artxiboa eskaintzeko gauza den herrialdearen ikuspegitik soilik egin daitezkeela interes orokorreko ikerketa-proiektuak, herri mailara mugatzen diren ekimenak ugaritzearekin kontrastean.

## 4. garapen teknologikoa

AHNk beste arazo estruktural garrantzitsu bati ere aurre egin behar dio: **masa kritiko nahikoa duten erakundeak** soilik dira inbertsio eta garapen teknologiko garrantzitsuei eta beren eragin- eta ekintza-eremuan izaera biderkatzailea dutenei aurre egiteko gauza. Alde horretatik, AHN egokia da gobernu-planek (Lehendakariaren **Ekimena** eta **Euskadi 2000Hiru-Euskadi Informazioaren Gizartean** esate baterako) eskatzen dituzten ikerketarako eta garapen teknologikorako proiektuei aurre egiteko. "Badator" zerbitzua bera ezaugarri horiek dituen artxibo baten azpiegitura informatikoa da. Bere funtzioei dagokienez, Irargi *Artxibo Historiko Nazional Birtual* baten ernamuina da.

## 5. trebakuntza eta zabalkundea.

AHNk instalazio egokiak ditu lanbide-heziketako ikastaroak eta mintegiak antolatzeko; gainera, diziplina anitzetan jardungo duten lan-taldeak sortzeko aukera ematen du, gure lan-jardunean interes eta inplikazio gehien duten kolektiboekin: administratzaileak, irakasleak, ikertzaileak, kultur animatzaileak, etab. Halaber, lan-eremu egokia da dokumentuen eta artxibo-zerbitzuen kudeaketan aplikatzeko hizkuntz normalkuntzarako proiektuak garatzeko.

---

<sup>7</sup> <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2000/05/0203118a.pdf>

Bestalde, nabarmentzekoa dela uste dut Arxibo Nazionala funtsezko elementua dela **balio garrantzitsuenen sedimentazioan**, bai herrialdearen orainean eta bai geroan:

- gure **nortasun kolektiboa** eta gure kontzientzia historikoa **egituratzea** nortasun propioa duen lurralde-erakunde gisa.  
Euskadik kontzientzia historiko eskasa du, eta hori garrantzi bereziko elementu biltzailea da, baina orain arte gutxietsi egin da horren eraginkortasuna. Eta, batez ere, herrialdearen historia kolektiboa balioesteko interes urria du. Herri eta probintzia mailako historia asko landu da, baina ikuspegi historiko komuna falta da. Arxibo historikoa da elementu historiko komun horiek egiteko eta muntatzeko laborategi nagusia. Arlo horretan betetzen duen funtzioa ezin du beste ezein azpiegiturak bete. Arxiboa historia komuna daukagula adierazten digun elementua da, horren oinarri diren dokumentazio-elementuak gordailu bakarrean biltzen baititugu. Guggenheim museoa apustu politiko jakin baten emaitza da, eta Euskadi etorkizunari begiratzen dion eta modernotasunaren alde egiteko beldurrik ez duen herrialdea dela sinbolizatzen du. Era berean, bere historia baloratzen duen eta ikertzeko eta transmititzeko bide egokiak ezartzen dituen herrialdearen sinbolo izango da AHN.
- **kohesio soziala eta kulturala** sendotzea, bere egituratzea indartuko duten dokumentazio-elementu objektiboak emanez. Gure kultur ingurunea arretaz behatzen badugu, oso litekeena da ohartzea kultur azpiegitura komunak falta ditugula zenbait arlo garrantzitsutan. Gure memoria kontserbatu eta ondorengo belaunaldiei transmititzeko arloan nabarmena da.

Harrigarria da, era berean, elkarbizitza eta gizarte-kohesiorako kultur laborategiak sortzeko ahalegin serio eta jarraiturik orain arte egin ez izana, elkartzeko eta elkarrizketarako, sosegurako guneak alegia. Alde horretatik, AHN esparru egokia da. Guztiok onartzen dugun legez, artxiboko dokumentuak dira iraganaren lekuko zintzo eta objektiboak. Iragana berreskuratu, interpretatu eta, azkenean, sozializatu nahi dutenak biltzen ditu inguruan. Hau da, artxiboa kohesio kolektiboaren ernamuin emankorra da, bere helburua –edukiagatik, dokumentuengatik– beste edozein kontsiderazioren gainetik baitago. AHNko dokumentuak guztionak eta guztiontzat dira. Zentzu kolektibo handiko irakasbidea da eta, estutuz gero, solidarioa ere badela esango nuke.

### 3.2 'Euskal Arxibo Zerbitzua' sendotzea


Gobernu-maila edo -esparrua artxibo-politikaren protagonista nagusiarekin eta kulturaren esparruko zerbitzuen arduradun nagusiarekin bat baldin badator, herria edo udalerrria da herritar gehienek berek sortzen duten ondare dokumentalera heltzeko duten bide zuzenena.

Zerbitzu batzuk eta besteak behartuta daude elkar ulertu eta lankidetzan estuan jardutera. Herri mailako artxibo-zerbitzuen sare eraginkorra osagarri egokia da AHNren jarduerarako, eta, alderantziz, AHN sare horren elkargunea da.


Horregatik proposatzen da bigarrenik zerbitzu hori sendotzeko programa, 'unibertsal' izendatu dudana zerbitzua ezartzeko. Programa horri esker, *continuum* gisa, EAEko herritar guztiek udalerriko artxiboa (herrialdearen baliabide artxibistiko nagusietako bat, udalbatzen historia luzea eta herritarren bizimoduko esparru guztietan udalerririk duen garrantzia kontuan hartuta) baldintza eta berme berarekin izango dute eskuan.

Jaurlaritzak udalerrietako artxibo-zerbitzuekin harreman estuan lan egiten du. 12 urte hauetan(1990-2002), udalerrietako artxibo-zerbitzuak sortu eta sendotzeko programa batek, lehen aipaturiko urteko diru-laguntzen ordenari esker, informazio asko eman du Autonomia Erkidego osoan zerbitzu honek duen egoera errealari buruz, eta, Kultura Sailak ematen dituen diru-laguntzei esker,

**1.taula: Diru-laguntzen eskariak 1990 - 2001**



**2. taula: Proiektu-motak, eskari-kopuruaren arabera**





dituen arazoen berri zehatza lortu da. Hiru grafiko hauek modu adierazgarrian azaltzen dute hori.

Aurreko bi ataletako adierazpen batzuk berriro ekarriz, 2002ko egoerak, agian, inflexio-puntu bat adierazten du. Honako ezaugarri hauek ditu:

1. Artxibo-zerbitzuan behin-behinekotasunak behera egin du. Orain 20 urte arte zalantzan jartzen zen zerbitzu honen beharra. Gaur egun, udalerrri askok zerbitzu berriua eta eraginkorra dute (erref. EAEko mapa). Beste batzuek, txikienek batez ere, zerbitzu eskasa eta mantentzeko zaila dute. Dena dela, eta hau da aldaketa handiena, jada udal batek ere ez du zalantzan jartzen artxiboaren gain duen erantzukizuna, eta dituen lehentasunen eta aukera ekonomikoen arabera arreta eskaintzen diote. EKOLEk berak (ondare dokumentalaren ardura titularrari ematen diona, Udalari) edota dokumentu publikoak eskueran izateko eskubidearen aldarrikapen sozial gero eta sendoagoak lagundu dute aldaketa horretan.
2. Eskualdeetako zerbitzuak garatu dira. Lehen esan bezala, udal handi gehienek beren ekipamenduak berriitu dituzte, eta horien artean artxiboa instalazioz eta –kasu batzuetan bakarrik– pertsonal egokiz edota behar adina langilez hornitu dute. Udalik txikiak, ordea, ez dira gauza zerbitzu berdina eskaintzeko. Bilakaera historikoak egoera aldatu du kasu batzuetan; batzuk antzina garrantzitsuagoak ziren, eta, horregatik, artxibo esanguratsuak gordetzen dituzte, egungo artxibo bizia kudeatzeaz gain. Artxibo-zerbitzu erkidetuak sortzea proposatu izan da orain urte batzuetatik; eta, gaur egun, mota horretako artxibo-zerbitzuek ematen dute zerbitzua, 6 eskualde-artxiboaren bidez, Araba ia osoan, eta Gipuzkoako Ernio Behea eskualdean (erref. mapa). Artxibo-zerbitzuari bere kasa aurre egin ezin dioten udalerriei irtenbidea emateko, beharrezkoa litzateke mapa hori metodikoki osatzea.

### 3. taula: Finkatutako artxibo-sistemak





## 2002ko artxibo-zerbitzuak

3. Baliteke laster egun funtzionatzen duten udalerrietako artxibo-zerbitzuak kolapsatzea. Izan ere, udalerrri askotan artxibo-egiturak eta horietarako plazak sortu dituzte, baina pertsona bakar batek (gehienetan pertsona bakarra aritzen baita lan horretan) ezin dio aurre egin administrazioetik eta inguru kulturaletik datorkion eskariari. Bakarrik, edo ia bakartuta, jarduten dute profesionalok, eguneroko kudeaketak eta artxibo biziak dituen arazoek gaina hartuta, eta herritarrek egunez egun eskatzen dizkieten funtzio kultural eta hezitzaileak betetzeko aukera gutxiarekin. Funtzio kultural horien ondorio izaten dira, gainera, lan profesionalaren estimua eta onarpen soziala eta ondare dokumentala balioestea. Soluzio-bidea kultur eta heziketa-zabalkundearen espezializatutako laguntzarako lurralde-zerbitzua sortzea izan liteke, aldi berean, artxibo-zerbitzu batzuek deskripzio- eta mekanizazio-arloetan duten gehiegizko lan-karga arintzen lagunduko lukeena.

Egia esan, **Euskal Artxibo Zerbitzua** deituko genukeena –herritarrei zerbitzu orokorrak eskaintzeko beste arlo batzuetako filosofia aintzat hartuta– baliabide ekonomiko egokien banaketaren baitan dago. Baliabide horiek honako hau ahalbidetu beharko lukete:

- a. Eskualde-artxiboen mapa behin betiko finkatzea eta handitzea, esperientzia pilotua behar beste kontrastatuta baitago
- b. herri-administrazio askoren defizita (ordenamendu juridikoak egotzi eta herritarrek gero eta gehiago eskatzen dieten zerbitzu-aukerak ematean) finantzatzea

Azken finean, bigarren programa honen helburua bi alderdi hauek konbinatzea da: alde batetik, toki-administrazioari laguntzea zerbitzua eskaintzeko bitartekoak jarri dituen lekuan eta erabat gauzatzeko gauza ez denean, eta bestetik, haren ordeztu jarri zerbitzu hori eskualde mailako zerbitzuak soilik berma dezakeenean.

### **3.3. Memoria Dokumental Digitala. “Euskadiren Memoria Historikoa bere Artxibo Fondoetan”.**

Aurreko bi programek ikuspegi bat eman eta ondare dokumentalari eragiten dion ekintza proposatzen dute. Hirugarren eta azkenak proposamen globala egiten du erabiltzailearen ikuspuntutik; izan ere, horixe da ondare dokumentalaren sorkuntzako subjektua eta esparru horretako politikaren objektu nagusia izan behar du. Erabiltzaileari bere ondare eta artxiboetara heltzeko bidea erraztu nahi dio programa honek; hain zuzen ere, azken finean horixe da artxiboko dokumentazioa kontserbatzeko, tratatzeko eta zabaltzeko politika guztien helburua.

2000n Kultura Sailak hitzarmen bat sinatu zuen hiru euskal elizbarrutiek, Euskal Herriko parroketako sakramentu-fondoak –hiru elizbarruti-artxiboetan daudenak– indexatu, digitalizatu eta Internet bidez zabaltzeko. Proiektu hori deskribatzen zuen txostenean dokumentazio historikoaren digitalizazio historikoa egiteko proposamena aipatzen zen, eta sakramentu-liburuek zati handia hartzen zuten.

XXI. mendeko lehen hamarkadan iraultza garrantzitsua gertatuko da; herritarrek beren memoria historikoa eskuratzeko bide demokratiko eta libre izango dute, baina Gobernuaren ardurapean egon eta, aurrez, duten ondare dokumentalaren deskripzio masiboa (kontserbazio eta erabilera eraginkorra bermatzeko modu bakarra) egiteko programa bat diseinatu duten artxibo-zerbitzuak soilik izango dira gauza artxiboak behar bezala kudeatzeko: jatorrizko agiriak eskuratzeko aukera, CD-ROMean (edo DVDan) erreproduzituak, Internet bidez zabalduko dituzten zerbitzariari esker.

*Badator* zerbitzuak garapen teknologiko aitzindaria dakar, eta posizio erosoan jartzen gaitu egungo eskaintza zabaltzea baizik izango ez litzatekeen erronkari aurre egiteko. Dokumentuen irudia zabaltzea pauso logikoa da, erabiltzaile askok eskatu izan dutena, artxibo-zerbitzuek erabiltzaileei eskaintzen dizkieten *produktuen* garapenean.

Programaren helburuak:

1. herritarrei balio erantsi handiko zerbitzua eskaintzea, interes masiboko dokumentaziorako sarrera masiboa (Internetek posible egiten duena) ahalbidetuta.
2. Kanpoko baliabide ekonomikoak mugiarazteko gauza den proiektua diseinatzea, aurreikusi ezin diren aukera sozialak eta kulturalak dinamizatzea edo inguruan itxuraz izan dezaketena baino eragin handiagoko inpaktu teknologiko erredundanteak sustatzea. Eredu honetako inbertsioek –horien funtsa, inbertsioaren handitasunean baino gehiago, dagokien eremu funtzionalari egokitzean datza– garapen ekonomiko nabarmena ekarriko dute Euskadin informazioaren gizartea garatzeko



3. eta, beraz, iraultza txiki bat eragitea, eremu sotil eta jatorrizkoenean, Euskadiko herritarren informaziorako sarbide unibertsalaren eremuan alegia: artxibo eta jatorrizko dokumentuetarako sarbidea. Sarbide unibertsala sustatzea interes unibertsala duten artxibo-fondoetan.

Ohiz kanpoko inbertsio horrek aurreikusitako eragin erredundanteak eta irismen handikoak lor ditzan, funtsezkoa da, ondare dokumentalaren sektorea hautatzean, honako ezaugarri hauek dituen aukeratzea:

- a. egiaztatutako interes orokorra; erabiltzaile elitista edo gutxiengo bati zuzendua ez dena. erabiltzaile asko eta askotarikoengana iristeko moduko dokumentazioa.
- b. informazio espezifikoa eta jatorrizkoa duena; erreferentzia errepikatuak edo beste dokumentazio batean ageri diren berak ez dituen (11. paragrafoan dokumentu *Lehen mailakoak* izendatu ditudanak).
- c. herritar guztien adierazle dena; bizitza soziala eta kolektiboa islatzen duena, hau da, ez elitea, kolektibitatea edo talde berezi bat.
- d. denbora luzeko informazio-gaitasuna duena; bizi historiko eta sedimentazio luzeko dokumentazioa
- e. erraz eta azkar erabiltzeko modukoa; agiri ulerterrazak, erraz eskuratzeko modukoak eta irakurterrazak.
- f. erabiltzailea inplikatzeko gai direnak; sortzen duten berehalako interesagatik erabiltzaile 'unibertsalarengana' hurreratzen dituen hurbiltasun-sentimendua sortzen dutenak.

Agerikoa da memoria hau ez dela leku egokia lehendabizi zein dokumentazio digitalizatu behar den zehatz aztertzeko, ezta prozesuak, epeak edo kostuak zehazteko ere. Dena dela, aurreko paragrafoetan emandako irizpideak oinarri hartuta, esan liteke zein diren lehentasunezko fondoak edo dokumentazio-motak:

1. sakramentu-erregistroak , Erregimen Zaharreko 'erregistro zibila' (dagoeneko tratatzen ari dira aipatutako proiektua kontuan izanik).
2. protokolo notarialak; XIX. mendera arte pertsonen, jarduera ekonomikoen, gizarte-egituraren eta abarren historiaren lekuko zintzoenak. Zalantzarik gabe, oro har, gure iraganaren berri izateko iturri kualitatiborik garrantzitsuena dira.
3. toki-administrazioen akta-liburuak (eta, dagokionean, diputazioenak)<sup>8</sup>, herritarren bizitza komunitarioaren adierazleak bost mende;
4. argazki-bildumak eta plano zaharrak ez dira ugariak baina oso sakabanatuta daude (Euskadiren irudia ezezaguna da erabat; argazki-fondo zahar asko daude lurralde osoan barreiatuta);
5. familien artxibo-fondo pribatuak
6. garrantzi handiko bilduma monografikoak, balio testuala, figuratiboa, linguistikoa edo kulturala dutelako<sup>9</sup>

Fondo horiek guztien interesa sortzeko adinako antzinatasuna, informazio-dentsitatea eta garrantzia daukate. "*Euskadiren Memoria Historikoa bere Artxibo fondoetan*" berreskuratu eta zabaltzeko proiektu handia osatuko dute, hainbat serie hartuko dituenak:

- a. memoria kolektiboa: udalerrri- eta foru-administrazioa;
- b. memoria partikularra: erregistro zibila (lehendabizi Elizarena, gero zibila) eta protokolo notariala;
- c. memoria iruditan: argazki-fondoak;
- d. memoria familiar eta berezia: artxibo pribatuak, elkarteenak eta bildumagileenak

---

<sup>8</sup> Ez dago sobran gure lege-ordenamendua (EKOL batez ere) gogoratzea; izan ere, foru-diputazioei bere zerbitzu eta artxibo-fondoan gaineko eskumen osoa ematen dienez, neurri batean, Jaurlearitzaren plan orokorretatik kanpo uzten ditu. Kasu honetan, erabat bestela gertatzen da, normalena (komenigarriena izateaz gain) diputazioek ere programan parte hartzea izango litzateke.

<sup>9</sup> Hemen, zalantzarik gabe, bat egingo dute interes komuneko liburutegietako bilduma batzuekin: bilduma hemerografikoak, hainbat pertsona ezagunenak, etab.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Testu hau eta antzekoak ez dira idazten bibliografiatik hartutako datuak bilduta. Egindako ohar eta erreferentzia asko *Irargi*-ko langileek egindako azterketa tekniko argitaragabeetan oinarritzen dira. Horregatik, beraz, azterketa hau egiteko baliatutako obra eta artikulua esanguratsu batzuk soilik aipatuko ditut.

AGUINAGALDE, F.B. *Los Archivos de familia. Definición, estructura, organización. Lección de ingreso en la RSBAP*, RSBAP, Donostia, 1992, Nuevos extractos bilduma, zk.: 5, or.: 9-37.

AGUINAGALDE, F.B. "Elementos para una historia de los Archivos y la Archivística des una perspectiva interdisciplinar", in *Irargi*, I (1988), or.: 63-110.

AGUINAGALDE, F. B. *Erudición y organización de Archivos privados en la Monarquía Absoluta: de la función común a la configuración de una profesión específica*, in "Seminari Internacional d'Estudis sobre la Cultura Escrita. Erudición y discurso histórico. Instituciones europeas (siglos XVIII-XIX)", Valentzia, 1993

AGUINAGALDE, F. B. "*Esperienze archivistiche nella descrizione e nell'automazione*", in Atti del Convegno "Gli standard per la descrizione degli archivi europei. Esperienze e proposte" (San Miniato, 1994). Ministero per i beni culturali e ambientali, Ufficio centrale per i beni archivistici, 1996, or.: 254 - 300.

BUCHMANN, W. "Preservation: buildings and equipment", in *Janus*, 1998.1, or.: 49-62

BUREAU CANADIEN DES ARCHIVISTES Groupe de travail sur les normes de description en archivistique, "Les normes de description en archivistique: une nécessité", Ottawa, 1986.

LLANSO I SAN JUAN, J. Gestión de documentos. Definición y análisis de modelos, *IRARGI*. Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa, Ikerlanak bilduma, zk.: VII, Bergara, or.: 1995, 250.

RHOADS, James B. *La función de la gestión de documentos y archivos en los sistemas nacionales de información: un estudio RAMP*. (PGI-89/WS/6)

STIBBE, Hugo P.L. "Applicare il concetto di fondo: Punto di acceso primario, descrizione a più livelli e controllo di autorità", *Archivi & Computer* (4), 1993, or.: 211-250

VOGEL, B. "Archives, musées de papier ou Centres d'Information", in *JANUS. Revue Archivistique*, C.I.A., 1992.2, Simposium-eko aktak "Les Archives et l'Europe sans frontières", Maastricht, 1991

WALNE, P. (bild.) "La administración moderna de Archivos y la Gestión de Documentos: el prontuario RAMP", Paris, Unesco, 1985.

F. Borja de Aguinagalde  
Ondare dokumentalaren arduraduna  
Bergaran, 2002ko urriaren 1ean